

herrera

Saneamendu sare beharra


Herri-Pe Auzo Elkarteak Herrerek saneamendu alorrean duen egoera kaskarra salatu du berriro ere Udaletxean, Eusko Jaur-laritzan eta Foru Aldundian.

Pasa den abuztuan Herrerako zenbait bizilagunek, saneamendu kontuetan agindutako lan guztiak egiteke zeudela eta, bere kezka azaldu zioten Herri-Pe Auzo Elkarteari. Auzotar hauen esanetan, estolda eta ur-irteeren arazoa areagotu egin da Garberako lanen eraginez, izan ere, orain arte Garberako lurrek ura zurgatu egiten zuten, baina hemendik aurrera, hipermerkatua eta inguruko azpiegitura guztiakin ez da hori gertatuko.

Aurrekontuz kanpo

Auzo Elkarteak adierazi du gainera, 1992ko uholde- ondoan, nahiz eta arazoaren larritasuna ikusi, udalak aurrekontuetatik baztertu egin dituela lan hauek.

Uholde haien ondoren,



1992ko argazkia dugu hau. San Luis plazan ura metro batetik gora igo zen.

Donostiako Udalak arazoa konpontzeko 140 milioiko aurrekontua eta berehalako irtenbidea eskaini zien biztanleei. Orain, lau urte beranduago Herri-Pe Auzo Elkartearen eskuetara iritsi

da berriro ere arazoa.

Beti beldur

Esan bezala, 1992an, San Luis plazan izugarritzko uholdeak jasan zituzten, itxuraz behintzat, bertako saneamen-

du sarea gaizki zegoelako. Arazo honi, orain lur azpitik doan Txingurri erreka itsasgora dagoenean sorrarazten duen arriskua gehitzen badiogu, ez da harritzekoa San Luis plazako etxe eta dendetako jabeak larri izatea curi zaparradak izaten direnetan.

Jendeak gainera, oso gogoan dauka duela gutxi Zubipe tabernak izandako ur beltzen uholdea.

Aterpea jubiletzeko aiton-amonek Kantabriara hurbiltzeko aukera izango dute urriaren 9an. Ikasturte honetan lehena Comillasera izango da. Ibilaldia Olmos Pasealekutik goizeko 8etan aterako da.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



TRANSMISIOAK

BANATZAILEAK:

- *Garraio eta transmisio kateak*
- *Motorrak, erreduktoreak eta akoplamenduak*
- *Akoplamenduak, Cardan junturak eta reeunioak*
- *Uhalak eta poleak*

Jose Elozegi alkatea 125 • Tfnoak.: 40.02.68/40.03.92 • Faxa: 39.71.93

ELOSEGI TABERNA

Denontzat leku berri bat

Jose Elozegi alkatearen ibilbidea • Tfnoa.: 400500

MARIO taberna

KAZUELITAK ETA EGUNEROKO MENUA

Zubiaurre pasealekua 56 • INTXAURRONDO • Tfnoa.: 27.75.55